



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko maiatzaren 22a

61. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Fiteroko Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Fiteroko Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Barzorde Iraunkorrek, 2019ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Fiteroko Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Fiteroko Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|---|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Fiteroko Udala (4. or.).</p> <p>III. Helburuak eta norainokoa (5. or.).</p> <p>IV. Iritzia (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren 2017ko kontu orokorrari buruzko auditoretza finantzarioko iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (6. or.).</p> <p>V. Udalaren 2017ko kontu orokorraren laburpena (7. or.).</p> | <p>V.1. Udalaren aurrekontuaren betetze-egoera 2017an (7. or.).</p> <p>V.2. Udalaren 2017ko aurrekontu-emaiza (7. or.).</p> <p>V.3. Udalaren diruzaintzako gerakina 2017ko abenduaren 31n (8. or.).</p> <p>V.4. Udalaren 2017ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (9. or.).</p> <p>V.5. Udalaren 2017ko ekonomia- eta -ondare-emaizaren kontua (10. or.).</p> <p>VI. Ondorioak eta gomendioak (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Udalaren 2017ko abenduaren 31n aurrekontua (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Udalaren 2017ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Alderdi orokorrak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Langile-gastuak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.7. Transferentzia arruntengatiko gastuak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.8. Inbertsioak (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.9. Aurrekontuko diru-sarrerak (20. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.10. "San Raimundo de Fitero" Zahar-etxea (25. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (30. or.)</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioen erantzuna (31. or.)</p> |
|---|---|

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak eskatuta, 2017ko otsailaren 27ko bileran erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Fiteroko Udalaren 2012-2015 ekitaldiei buruzko fiskalizazio-txosten bat egin zezan.

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2018rako jarduketaprogramari jarraituz, Fiteroko Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du; honako hauek osatzen dute kontu hori:

Udalaren beraren eta haren erakunde autonomoaren —San Raimundo de Fitero zahar-etxea— kontua, zeinean jasotzen baita aurrekontuaren likidazioaren espedientea eta egoera ekonomiko-ondarekoaren espedientea (egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua) eta eranskinak.

Kontu orokorraren eranskinak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarreanean Fiteroko Udalaren antolamendua erakusten dugu, eta hirugarreanean, berriz, lanaren helburuak eta norainokoa; laugarreanean gure iritzi finantzarioa eta legezketasuna betetzeari buruzkoa azaltzen dugu Udalaren 2017ko ekitaldiko urteko kontu orokorrari dagokienez; bosgarreanean, finantzen egoera-orri garrantzitsuenen laburpen bat jaso dugu. Azkenik, seigarreanean, zenbait ondorio jaso ditugu (honako gai hauei buruzkoak: egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta kudeaketaren beste alderdi garrantzitsu batzuk), bai eta Udalaren antolaketaren eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

2017an Fiteroko Udalarari aplikatzeko zaion arau-esparrua honako hauek osatzen dute, funtsean: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea.; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta araudi sektorial indarduna ere.

Landa-lana 2018ko abendutik 2019ko urtarrilera bitartean egin zuen auditoretzaren arloko enpresa kontratatu batek, Kontuen Ganberako auditore baten ikuskatzearen eta zuzendaritzaren pean. Era berean, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Jarduketa horren emaitzak Fiteroko Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, egokitzat jotzen zirenean alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea iraganda, Iruñeko alkateak alegazio batzuk aurkeztu ditu, eta alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Fiteroko Udaleko eta Fiteroko San Raimundo zahar egoitzako langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II.- FITEROKO UDALA

Fiteroko Udala Tuterako merindadeko udalerri bat da, Nafarroako Erriberakoa. 43,2 km² ditu eta 2.034 biztanle zeuzkan 2017ko urtarrilaren 1ean.

Udalak erakunde autonomo bat dauka zahar-etxea kudeatzeko.

2017ko abenduaren 31n, Udalak eta zahar-etxea ondoko datu ekonomiko eta langileriaren arlokoak dauzkate:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2017ko abenduaren 31n
Udala	1.828.312	1.879.990	10
Zahar-etxea	676.323	676.323	21
Guztira (bateratu gabe)	2.504.635	2.556.313	31

2017an, Udalak zahar-etxeari egindako ekarpena 111.148 eurokoa izan da.

Udalak honako mankomunitate hauetan hartzen du parte:

- a) Cascante, Cintruénigo eta Fiteroko Ur Mankomunitatea, goi hornidurarako.
- a) Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea, hiri-hondakin solidoen kudeaketarako eta tratamendurako.
- c) Cintruénigo eta Fiteroko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, oinarrizko gizarte zerbitzuak emateko.
- d) Hegoaldeko Nafarroa Kirol Mankomunitatea, kirol zerbitzuetarako.

Hurrengo taulan azaltzen ditugu Udalak ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea
Argiteria publikoa	x	
Hilerria	x	
Hondakinen bilketa		x
Kale garbiketa	x	
Edateko uraren etxeetako hornidura	x (baja)	x (alta)
Estolderia	x	
Populazio-guneetarako sarbidea	x	
Bide publikoen zoladura	x	
Gizarte zerbitzuak		X
Kirol instalazioak		x

III.- HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburuak hauexek dira:

- Gure iritzia ematea honako honi buruz: ea Fiteroko Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu orokorrrak irudi zehatza erakusten duen, alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, aurrekontuaren likidazioari eta 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruz, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei buruz ere, betiere aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Gure iritzia ematea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduketak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat etortzeari buruz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Udalaren 2017ko kontu orokorraren fiskalizazioaren norainokoa. Honako hauek dira kontabilitateko egoera-orriak:

- Udalaren beraren eta bere erakunde autonomoen kontua:

a) Aurrekontuaren likidazioaren espedientea.

b) Egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

c) Eranskinak: Diruzaintzako egoera-orria

- Kontu Orokorraren eranskinak: zorraren egoera eta kontu-hartzaitzaren txostena.

IV. IRITZIA

Fiteroko Udalaren 2017ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu.

Udalaren erantzukizuna

Udalaren kontu-hartzaitza da kontu orokorra egin eta aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dagoen kontu orokorra prestatu eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

2017ko kontu orokorra 2018ko abenduaren 27an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Udalak bermatu beharra dauka kontu orokorrean jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoak diren arauekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri behar ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea, gure fiskalizazioan oinarrituta, 2017ko kontu orokorraren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta, batez ere ISSAI-ES 200 delakoa aplikatu dugu, fiskalizazio finantzarioei buruzkoa, bai eta ISSAI-ES 400 delakoa ere, betetzearen gaineko fiskalizazioei buruzkoa. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorrean arrazoizko segurtasun bat lortzea eta hartan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko kontu orokorretan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere.

Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia emateko.

IV.1 UDALAREN 2017KO KONTU OROKORRARI BURUZKO AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

a) Udalaren 2017ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinak ez ditu bilketa zaileko eskubi-deak jasotzen; eskubide horiek 566.040 euro egiten dute. Hori dela eta, gerakina gainetik baloratuta dago, hain zuzen ere zenbateko horretan.

b) 2017ko ekitaldiko aurrekontu emaitzan, ez dira jasotzen diruzaintzako erakinarekin finantzatutako gastuak, 46.333 eurokoak; horrek esan nahi du emaitzari zenbateko hori gehitu beharko litzaikeela.

c) Udalak zahar-etxeari egin dion 71.148 euroko ekarpena, 2017ko ekitaldiko defizita estaltzeko, dagokion aurrekontu-aldaketa onetsi gabe egin da.

d) Zahar-etxean aitortutako betebeharrak 115.268 eurotan gainditzen dituzte behin betiko kredituak; halere, kasuko aurrekontu-aldaketak ez dira onetsi.

e) Egoitzaren 2017ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinak ez ditu bilketa zaileko eskubi-deak jasotzen. 17.685 eurokoak dira eskubide horiek. Egitate horrek berekin dakar gerakina gainetik baloratuta egotea, hain zuzen ere zenbateko horretan.

Iritzia

Gure ustez, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" atalean azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2017ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, kontu orokorrak emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Udalaren 2017ko ekitaldiko jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan jasotako informazioa bat datoza, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

V. UDALAREN 2017KO KONTU OROKORRAREN LABURPENA**V.1. UDALAREN AURREKONTUAREN BETETZE-EGOERA 2017AN****Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	532.272	0	532.272	488.596	92	462.908	95	5.688
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	997.900	0	997.900	865.611	87	824.465	95	41.146
3. Gastu finantzarioak	2.700	0	2.700	2.612	97	2.612	100	0
4. Transferentzia arruntak	140.916	0	140.916	207.107	147	173.087	84	34.020
6. Inbertsio errealak	162.100	421.265	583.365	215.069	37	215.069	100	0
7. Kapital-transferentziak	65.000	0	65.000	5.500	8	5.500	100	0
9. Finantza-pasiboak	43.817	0	43.817	43.817	100	43.817	100	0
Guztira	1.944.705	421.265	2.365.970	1.828.312	77	1.727.458	96	80.854

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Betetakoa (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	561.000	0	561.000	548.584	98	482.734	88	65.849
2. Zeharkako zergak	25.000	0	25.000	32.214	129	6.587	20	25.627
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	340.530	0	340.530	362.595	106	301.449	83	61.146
4. Transferentzia arruntak	828.272	0	828.272	808.256	98	806.321	100	1.934
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	36.050	0	36.050	22.595	63	21.971	97	625
6. Inbertsio errealak besterentzea	100	0	100	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	153.753	0	153.753	105.746	69	0	0	105.747
8. Finantza-aktiboak	0	421.265	421.265	0	0	0	0	0
Guztira	1.944.705	421.265	2.365.970	1.879.990	79	1.619.062	89	260.928

V.2. UDALAREN 2017KO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2016ko ekitaldia ^a	2017ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	1.829.425	1.879.990
- Aitortutako betebeharrak	1.655.844	1.828.312
Aurrekontu-emaiza	173.581	51.678
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak**	47.344	46.333
Aurrekontu-emaiza doitua	220.925	98.011

^aAuditatu gabeko ekitaldia^{**}Ganbera honek egokitutako zenbatekoa (VI.2 atala)

V.3. UDALAREN DIRUZAINZAKO GERAKINA 2017KO ABENDUAREN 31N

Kontzeptua	2016ko ekitaldia*	2017ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	230.874230.874	325.126
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	159.500	260.928
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	574.992	603.893
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	37.182	38.043
(-) Ordainketen itzulketak	1.641	50
(-) Bilketa zaileko eskubideak**	-529.089	-566.040
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-13.352	-11.748
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	89.929	137.582
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	45.356	80.854
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.029	228
(+) Diru-sarreren itzulketak	0	0
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-6.060	-5.500
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	49.604	61.998
(+) Diruzaintzako funts likidoak	1.054.078	1.018.602
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintzako gerakina, guztira	1.195.023	1.206.146
Diruzaintzako gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak diru-erla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	1.195.023	1.206.146

*Auditatu gabeko ekitaldia

**Ganbera honek doituakoa zenbatekoa (VI.9.5 atala)

V.4. UDALAREN 2017KO ABENDUAREN 31KO EGOERA- BALANTZEA

Jardunean

Deskribapena	2016*	2017
A Ibilgetua	17.718.785	13.129.856
1 Ibilgetu materiala	16.994.193	8.597.658
2 Ibilgetu ez-materiala	312.800	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	340.077	374.621
4 Herri-ondasunak	71.295	4.157.157
5 Finantza-ibilgetua	420	420
C Zirkulatzaila	1.860.262	1.954.350
8 Zordunak	800.124	930.249
9 Finantza-kontuak	1.054.078	1.024.101
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	6.060	0
Aktiboa, guztira	19.579.046	15.084.206

*Auditatu gabeko ekitaldia

Pasiboa

Deskribapena	2016*	2017
A Funts berekiak	18.917.243	14.420.206
1 Ondarea eta erreserbak	12.004.882	7.561.290
2 Ekitaldiko emaitzak	338.909	179.717
3 Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	6.573.452	6.679.199
C Epe luzeko hartzekodunak	525.676	481.859
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	525.676	481.859
D Epe laburreko zorrak	136.127	182.141
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	122.775	170.393
6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	13.352	11.748
Pasiboa, guztira	19.579.046	15.084.206

*Auditatu gabeko ekitaldia

V.5. UDALAREN 2017KO EKONOMIA- ETA - ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2016*	2017	Hartzeko	2016*	2017
61 Langile-gastuak	532.584	488.605	70 Salmentak	314.424	342.790
62 Finantza-gastuak	4.329	2.612	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	25.147	28.001
63 Tributuak	0	70	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	467.748	455.847
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	817.613	864.857	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	122.418	123.617
65 Gizarte prestazioak	521	676	76 Transferentzia arruntak	821.909	808.256
67 Transferentzia arruntak	115.201	207.107	77 Kapitalaren gaineko zergak	37.734	1.333
68 Kapital-transferentziak	1.200	5.500	78 Bestelako diru-sarrerak	24.197	14.400
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	0	21.494			
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	342.129	183.323			
Guztira	1.813.577	1.774.244	Guztira	1.813.577	1.774.244

*Auditatu gabeko ekitaldia

Ekitaldiko emaitzak

	2016ko ekitaldia*	2017ko ekitaldia		2016ko ekitaldia*	2017ko ekitaldia
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (zor-saldoa)	3.220	3.605	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	342.129	183.323
89 Etekin garbia guztira	338.909	179.717			
Guztira	342.129	183.323	Guztira	342.129	183.323

*Auditatu gabeko ekitaldia

VI ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanetik ateratako konklusio nagusiak jaso ditugu, bai eta udalaren eta haren erakunde autonomoaren kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa zein kudeaketa administratiboa hobetzeko Ganbera honek emandako gomendioak ere.

VI.1. UDALAREN 2017KO ABENDUAREN 31N AURREKONTUA

Udalaren hasierako aurrekontuan, 1,94 milioi euroko gastuen eta diru-sarreraren hasierako aurreikuspenak ageri dira.

Zenbateko horri 421.000 euro –ehuneko 22– gehitzen zaizkio aurrekontu-aldaketen bidez; horren emaitza da gastuen eta diru-sarreraren behin betiko aurreikuspenak 2,37 milioi eurokoak direla. Igoera horien justifikazioa inbertsioen kapituluaren dago, 162.000 eurotik 583.000 eurora handitu baitira, bai eta diru-sarreretan ere, aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakina sartu delako.

Gastuen bi aurrekontu-aldaketa berrikusi dira, 421.000 euro egiten dutenak, eta konklusioa da egoki izapidetu direla.

Aitortutako betebeharrak 1,83 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 77ko betetze-maila izan dute. Portzentajearen justifikazioa inbertsioen kapituluaren betearazpenean aurkitzen dugu, ehuneko 37koa izan baita, bai eta kapital-transferentzien kapituluaren betearazpenean ere, ehuneko zortzikoa izan baita.

Aitortutako eskubideak 1,88 milioikoak dira, ehuneko 79ko betearazpen-mailarekin; ehuneko horren azalpena dira, funtsean, diru-sarreretan egin diren aurrekontu-aldaketak, aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakina sartu baita, 421.000 euro; sartze horrek ez dakar berekin ekitaldiko eskubi-deak aitortzea.

Laburbilduz, Udalak 2017an gastatutako 100 euro bakoitza honako hauekin erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	Diru-kopurua	Finantza-iturria	Diru-kopurua
Langileak	27	Tributu bidezko diru-sarrerak	50
Bestelako gastu arruntak	59	Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak	49
Inbertsio errealak	12	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	1
Finantza-pasiboak	2		
	100		100

Hau da, funtzionamendu-gastuek guztizko gastuaren ehuneko 86 azaltzen dute, eta inbertsioek, berriz, ehuneko 12. Diru-sarreretan, iturri nagusia honako hauek dira: tributu izaerakoak eta transferentzia arruntak eta kapitalekoak, ehuneko 50 eta 49rekin, hurrenez hurren.

Udalaren 2017rako aurrekontuaren betetzeak eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketak honako adierazle eta magnitude hauek erakusten dituzte (eurotan):

Udalaren adierazleak	2016 *	2017	Aldea (%) 2017/2016
Gastuak, guztira	1.655.844	1.828.312	10
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4. kapitulara)	1.470.248	1.563.927	6
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	1.465.919	1.561.315	7
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	75.716	220.569	191
Finantza eragiketen gastuak (8 eta 9)	109.880	43.817	-60
Diru-sarrerak, guztira	1.829.425	1.879.990	3
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	1.813.579	1.774.244	-2
Tributuen bidezko diru-sarrerak (zergak, tasak eta kontribuzio bereziak)	894.592	854.359	-4
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arrunten gainean (%)	61	55	-10
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	15.848	105.747	567
Gastu arrunta biztanleko	737	769	4
Biztanle bakoitzeko kapital-gastua	38	108	184
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	448	420	-6
Dirulaguntzen mendekotasuna (%)	46	49	7

*Auditatu gabeko ekitaldia

Horiek aztertuta, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Guztizko gastuek ehuneko hamar egin dute gora 2016ko ekitaldiarekin alderatuta. Izaerari erreparatuta, kapitaleko gastuek ehuneko 191 egin dute gora eta finantza-eragiketei dagozkienak, berriz, ehuneko 60 jaitsi dira.
- Gutizko diru-sarrerak ehuneko hiru handitu dira aurreko ekitaldikoekiko. Tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko lau egin zuten behera, eta kapitaleko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 567 handitu ziren. Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak ehuneko sei jaitsi dira.

VI.2. UDALAREN 2017KO ABENDUAREN 31KO EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Honako hau da Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa eta aurreko ekitaldikoarekiko alderaketa:

Udalaren adierazleak	2016 *	2017	Aldea (%) 2017/2016
Aurrekontu-emitza doitu**	220.925**	98.011**	-56
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	287.790	98.107	-66
Aurrezki gordina	347.660	212.929	-39
Finantza-zama	114.209	46.429	-59
Aurrezki garbia	233.449	166.500	-29
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina**	1.195.023**	1.206.146**	1
Finantza-zamaren adierazlea***	% 7	% 3	-57
Aurrezki gordina / diru-sarrera arruntak***	% 24	% 19	-21
Zorpetze-ahalmena (%)	% 17	% 16	-6
Zor bizia	525.676	481.859	-8
Zor bizia/diru-sarrera arruntak (%)	% 29	% 27	-7
Zor bizia biztanleko	263	237	-10

*Auditatu gabeko ekitaldia

**Ganbera honek doituak zenbatekoa.

***Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.

Datu horiek guztiak aztertuta, honako hauek dira aipagarri:

- Udalak aurkeztutako aurrekontu-emaizari gehitu dizkiogu diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak (46.333 euro); zenbateko hori kontuan hartu gabe zegoen emaitza hori kalkulazterakoan. 2016arekin alderatuta, aurrekontu-emaizta doitua ehuneko 56 jaitsi da.

- 2017an aurrekontu gordina aurreko ekitaldiko aurrezki gordina baino ehuneko 39 txikiagoa izan zen. 166.500 euroko aurrezki garbiak erakusten du Udalak behar adina baliabide arrunt sortu zituela finantza-zamari eta funtzionamendu-gastuei aurre egiteko. 2016koarekin alderatuta, aurrezki garbi hori ehuneko 29 jaitsi zen.

- Diruzaintzako gerakina jaitsi dugu diru-bilketa zaileko eskubideak —566.040 euro— direla eta; zenbateko hori, izan ere, ez zen kontuan hartu gerakina kalkulazterakoan.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 1.206.146 eurokoa da, eta erakusten du hurrengo ekitaldietan gastuak finantzatzeko likidezirik badagoela.

- Udalaren 2017ko abenduaren 31ko zor bizia 481.859 eurokoa da. Aurreko urtearekin alderatuta, ehuneko zortzi jaitsi da, eta 2017an ez da mailegu berririk kontratatu.

Horrenbestez, Udalak finantza-egoera saneatua du; haren ezaugarria da 1,21 milioi euroko diruzaintzako gerakina duela gastu orokorretarako, 166.500 euroko aurrezki garbia eta 16 milioiko zorpetzeko gaitasuna. Hala eta guztiz ere, adierazle finantzario horiek, oro har, 2016koak baino txikiagoak dira.

VI.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionalako irizpideak jarraituta, honako ente hauek hartzen dira tokiko administrazio publikotzat: udala bera eta San Raimundo de Fitero zahar-etxearen erakunde autonomia.

Arau fiskalen betetzea kalkulatzeko, Udalak bere diru-sarrerak eta aurrekontu-gastuak hartzen ditu kontuan, erakunde autonomoarenak gehitu gabe. Arau fiskalen betetzea kalkulatu dugu informazio bateratuarekin, eta administrazio publikotzat hartzen diren entitateek honako datu hauek dauzkate:

- Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak
 - a) 43.601 milioi euroko finantzaketa-gaitasuna sortu dute.

Finantzaketa-gaitasuna

Kontzeptua	2017
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	95.495
Diru-bilketa zalantzarria duten diru-sarrerengatiko doikuntzak	-51.894
Finantzaketa-gaitasuna	43.601601

b) 2017ko ekitaldiko gastu konputagarria 93.950 euro handiagoa da gastuaren gehieneko muga baino; horrekin, gastu-araua urratzen da, zeren eta gainditzen baita 2017rako baimendutako aldearen tasa, ehuneko 2,1ekoa.

Gastuaren araua

Kontzeptua	2016	2017
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	2.165.722	2.349.635
Zorpetze-interesengatiko doikuntzak	-4.329	-2.612
Funts finalistekin finantzatutako gastuengatiko doikuntzak	-130.012	-206.805
Ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren inbertsioak	-46.938	-36.746
Oinarri-urtearen gastu konputagarria	1.984.443	2.103.472
BPGaren erreferentziako tasa	1,021	
2017rako gehieneko gastu konputagarri BATERATUA	2.026.116	
2017ko gastuan izandako desbideratzea		77.356

- Finantza-iraunkortasunaren printzipioa

a) 2017ko abenduaren 31ko zor bizia 482.000 eurokoa da, eta kopuru hori 2017ko ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 27 egiten du; portzentaje hori araudi indardunak ezartzen duen ehuneko 110eko mugatik beherakoa da.

- b) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea

Udalari dagokionez, adierazle horren batez besteko balioa honako hau izan da 2017an:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	2017
Lehenengo hiruhilekoa	-14,67
Bigarren hiruhilekoa	-6,84
Hirugarren hiruhilekoa	-17,62
Laugarren hiruhilekoa	-6,85

Ez dizkigute eman erakunde autonomoak hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeari buruzko datuak, baina faktura gehienak helbideratuta daude eta beste guztiak, oro har, 30 egunetik beherako epeetan ordaintzen dira.

Horrenbestez, Udalak eta bere erakunde autonomoak printzipio hori betetzen dute, zeren eta haien ordaintzeko epea txikiagoa baita araudi indardunak merkataritza-eragiketetarako ezarritakoa baino.

Azkenik, nabarmendu beharra daukagu ezen, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 32. artikuluari jarraituz, Udalak 2017an ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren inbertsioak egin dituela, aurreko ekitaldiko superabita aplikatuz; inbertsio horiek 0,1 milioiko gastua ekarri dute gutxi gorabehera, eta haien zati bat Nafarroako Gobernuauren dirulaguntzekin ordaindu da.

Gomendatzen dugu erakunde autonomoarekin bateratutako datuak erabiltzea Udalak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzen ote dituen kalkulatzeko.

VI.4. ALDERDI OROKORRAK

- 2017ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2017ko ekainaren 27an onetsi zuen, hasiera batez, Udalbatzaren Osoko Bilkurak. Aurrekontua behin betiko onetsi zen argitaratu zenetik hamabost egun iragan baitziren erreklamaziorik aurkeztu gabe, eta 2018ko azaroaren 19an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ezarritako epetik kanpo.

- Udalaren kontu orokorra 2018ko abenduaren 27an onetsi zen, lege ezarritako epetik kanpo. Kontu orokorrak ez du Udalaren eta erakunde autonomoaren egoera-orri bateraturik jasotzen, ez eta buruaren oroitidazkirik ere.

- Gorabeherak. Gaur egun, prozedura judicial bakarra dago irekita, Desjabetzeen Epaimahaiaren erabaki baten aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtso baten ondorioz, eta 104.359 euroko zenbatekoa jasotzen du; izan ere, Udalak uste du ez direla bidezkoak desjabetzeko beharrezana eta betebeharra, ez eta haren zenbatekoak ere.

- Udalaren zor biziaren muga-eguneratzeen egutegia, banku-entitateekikoa, honako hau da 2017ko abenduaren 31n:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2018	43.817	9	9
2019	43.817	9	18
2020	43.817	9	27
2021	43.817	9	36
2022	43.817	9	45
2023	43.817	9	63
Gainerakoa	218.957	46	100
Guztira	481.859	100	

- Aurrekontuz besteko saldoak. Aurrekontuz besteko saldo batzuk badaude ez 2017an, ez aurreko urteetan ere, mugimendurik izan ez duten hartzekodun eta zordunenak, baina ez dugu haien jatorria ezagutzen; horien artean honako hauek daude: ogasun publikoa, jasanarazitako BEZarengatik, 21.432 euro; ogasun publikoa, jasandako BEZarengatik, 14.789 euro; ogasun publikoa, BEZaren zordunengatik, 13.658 euro; eta aplikatzeko dauden sailkatu gabeko beste diru-sarrerara batzuk, 11.204 euro.

- Ibilgetua 2017ko abenduaren 31n 13 milioitan baloratuta dago, 2016ko abenduaren 31n baino ehuneko 26 gutxiago. Udalaren Osoko Bilkurak 2017ko irailaren 26an ondasun higiezin, ibilgai-luen eta udal ondarearen inbentario bat onetsi zuen, eta hartan zahar-etxearen ondasunak jaso zituen.

Ondasunen inbentarioaren balorazioaren ondorioz, ibilgetua 4,7 milioi gutxitu da, eta kasuko doikuntzak egin dira ondarearen kargura.

- Fiteroko Udalak hirigintzako lanak kanpoko aholkularitzaren bitartez garatzen ditu. Aholkularitza horrek 2017an 22.135 euroko gastua ekarri du (BEZa barne).

Fiteroko udal plana 2004ko uztailaren 5eko erabaki batez onetsi zen behin betiko, eta 2005eko maiatzaren 23an argitaratu zen NAOn. 2017ko abenduaren 31n, Udalak inongo hirigintza-hitzarmenik ez du betearazpen-fasean.

Gure gomendioak:

- Udalaren aurrekontuak eta Udalaren eta haren erakunde autonomoaren kontu orokorra legedi indardunean ezarritako epeetan onestea.
- Garatu beharreko jardueraren aurreikuspenei arrazoiz erantzunen dien aurrekontu bat egitea.
- Udalaren kontu orokorrean Udalaren eta haren erakunde autonomoaren egoera-orri bateratua jasotzea, bai eta buruaren oroitidazkia ere.
- Udaleko kontu-hartzaitzaren txostena osatzea aurrekontu-betearazpenari buruzko informazioarekin, kapituluz kapitulu, bai eta langileei eta kontratazioari buruzko informazioarekin ere, eta ebazteko dauden prozesu judizialeatik heldutako balizko gorabeherak jasotzea.
- Aurrekontukoak ez diren saldo zordunak eta hartzekodunak berrikustea, kobratzeko eskubi-deak eta ordaintzeko betebeharrak egiazki irudikatzen dituztenak identifikatzeko; kasuko kobrantzak eta ordainketak kudeatzea, eta kasuko kontabilitate-doikuntzak egitea, haiek erregularizatze aldera.
- Diru-bilketa zaileko eskubideei dagozkien zenbatekoak kalkulatu eta jasotzea, bai eta aurreko ekitaldietako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak ere, diruzaintzako gerakinaren kontabilitateko egoera-orrietan eta aurrekontu-emaizta doituari eragina dutenak.

VI.5. LANGILE-GASTUAK

Udalaren langile-gastuak 488.597 euro egin zuten, ehuneko 92ko betetze-mailarekin. Ekitaldian aitortutako betebeharren gutzitza ehuneko 27 egiten dute.

2016koekin alderatuta, langile-gastuak ehuneko zortzi egin zuten behera, batez ere funtzionarioen montepioaren kuota ehuneko 17 jaitsi zelako. Hona horien xehekako azalpena:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak 2016	Aitortutako betebeharrak 2017	Aldea (%) 2017/2016
Gobernu-organoak eta zuzendaritzako langileak	30.000	30.000	0
Funtzionarioak	171.904	175.726	2
Lan-kontratadun langileak	102.648	95.007	-7
Enplegu-emaileren kargurako kuota, prestazioak eta gizarte gastuak	227.052	187.864	-17
Guztira	1.033.208	947.194	-8

Plantilla organikoa

Udalaren Osoko Bilkurak, 2017ko ekainaren 27an, plantilla organikoaren hasierako onespena erabaki zuen. Behin betiko plantilla 2017ko irailaren 4an argitaratu zen NAO-n.

Honako hauek dira Udalaren lanpostuak 2017ko ekitaldirako, bai eta haien araubide juridikoa eta lanpostu hutsen kopurua ere:

Lanpostua	Araubide juridikoa	Lanpostuen kopurua	Lanpostu hutsen kopurua
Idazkaria	Funtzionarioa	1	1
Turismoko teknikaria	Funtzionarioa	1	0
Administrari laguntzailea	Funtzionarioa	2	2
Askotariko zerbitzuak	Funtzionarioa	4	1
Guztira		8	4

Horri buruz, hauxe esan behar dugu:

- a) Plantilla organikoan jasotako lanpostu guztiak funtzionario-araubidekoak dira.
- b) Lau lanpostu huts badaude; plantillaren ehuneko 50 dira.
- c) 2017an zehar, lau lanpostu hutsak beteta egon dira; horietako bat administrazio kontratu batekin eta beste hirurak lan-kontratuekin.

2017ko abenduaren 31n, Udalean hamar langilek egiten dute lan guztira; hona hemen xehetasunak:

Enplegatuak	Enplegatu kopurua
Funtzionarioak	4
Administrazio-kontratudun langileak	1
Kontratu mugagabe ez-finkoak	4
Aldi baterako lan-kontratudunak	1
Guztira	10

2017an egindako lan-ikuskatze baten ondorioz, aldi baterako lau lan-kontratu mugagabe ez-finko bilakatu ziren. Langile horiek Udalean zerbitzuak ematen dituzten obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuen bitartez, baina kontratu horien antzintasunak halako kontratuetarako baimenduta dagoen gehieneko iraupena gainditzen zuen. 2017ko abenduaren 31ko langileen zerrendan, arestian aipatutako lau langileak daude, lan-kontratu mugagabe ez-finkoen kalifikazioarekin.

2017an ez zen lan-eskaintza publikorik egin, eta ez zen langileak kontratatzeko deialdirik egin.

Azken urte hauetan lanpostuak betetzeko edo kontratazio-zerrendak osatzeko inongo deialdirik ez da argitaratu; hautapen-prozedura bat egiten zen kontratazio bakoitzerako, baina 2017an, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez, lan-poltsa bat sortu zen zerbitzu anitzetako langileentzat, eta 2018an, berriz, administrari laguntzaileentzat.

Egindako berrikuspenetik nabarmendu beharra daukagu ezen, oro har, langileen espedienteak osorik daudela eta ordaindutako lansariak bat datozela plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuekin eta espedienteen jasotako inguruabar administratibo eta familiarrekin, eta araudian ezarritakoaren araberrakoak dira. Hala eta guztiz ere, honako hau aipatu behar dugu:

a) Plantilla organikoan, turismoko teknikariaren eta zerbitzu anitzetako langileen lanpostuetan lanaldiaren luzapenaren osagarria ageri da jasota. Osagarri hori ematen zaie oro har ezarritakoa baino lanaldi luzeagoa egin ohi duten lanpostuei, eta osagarri hori jasotzen denean inolaz ere ezin izanen da aparteko ordurik sortu.

Arestian aipatutako lanpostuak betetzen dituzten langileek aparteko orduengatiko ordainsariak jaso dituzte 2017an, araudi indardunean ezarritakoa urratuz. Aparteko ordu horien zenbatekoa 13.888 eurokoa da.

Bestalde, alde zuzeneko baimena falta da, aparteko eta premiako lanak egiteko aparteko orduak egitea justifikatzen duena. 2018an, ordu horiek egiteko abala arduradunak, erantzuleak edo alkatuek emandako sinadurarekin eman da. 2017an, hainbat langilek urteko 50 orduko gehieneko muga gainditu dute, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren kontra.

b) Turismo bulegoan laguntzako lanak egiten dituen langile baten gastua gastu arrunt eta zerbitzuetako kapituluan kontabilizatzen da. Haien zenbatekoak 6.653 euro egiten du.

c) Zerbitzu anitzetako funtzionario batek Gizarte Segurantzari kotizatzen dio dagokionaz beste atal batean.

Gure gomendioak:

- *Lan-eskaintza publikoa onestea eta plantilla organikoan dauden lanpostu hutsetarako deialdia egitea, araudi indardunean ezarritakoari jarraituz.*

Aparteko orduak baimentzea haiek egin baino lehen.

Aparteko orduetarako ezarrita dagoen urteko muga errespetatzea, eta hala ez bada baimenean ordu horiek egiteko arrazoia aipatzea.

Turismo bulegoan laguntzako lanak egiten dituen langilearen gastua langileen kapituluaren erregistratzea.

Zerbitzu anitzetako funtzionarioaren Gizarte Segurantzarako kotizazioaren atala aldatzea.

VI.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Udalaren ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuek 865.611 euro egin zuten 2017an; aurreikusitako kredituaren ehuneko 87, hain zuzen. Ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 49 egiten dute.

Gastu horiek aurreko ekitaldikoak baino ehuneko sei gehiago izan ziren, "beste enpresa batzuek egindako lanak" kontzeptuak ehuneko 56 gora egitearen ondorioz.

Honako hauen lagin bat berrikusi dugu:

a) Gastuen partidak

Aurrekontu-partida	2017an aitortutako betebeharrak
Uraren goi-hornidura	115.047
Iraileko herriko jaiak	81.912
Zezen-jaialdiak eta entzierroak	56.031
Musika bandaren ekitaldiak	33.630
Teknikari juridikoen lansariak	25.574
Hirigintza arloko teknikarien lansariak	22.377

b) 2017an adjudikatutako kontratuak

Deskribapena	Adjudikazio-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Zenbat lizitatuak	Adjudikatutako zenbatekoa (BEZik gabe)	2017ko gastua (BEZik gabe)
Ikastetxe publikoaren garbiketa eta atezaintza	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	59.504	2	52.000	2.167
Udal igerilekuaren kudeaketa, garbiketa eta zainketa, eta haren instalazioen ustiatzea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	9.917	1	8.595	2.149
Kutur etxeko tabernaren ustiatzea eta errentamendua; kultur etxearen garbiketa eta zainketa	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	7.934	2	16.080	670

Gure azterketatik ateratzen dugun konklusioa da ezen, oro har, berrikusitako aurrekontu-partidetako gastuak egindako kontratuen arabera justifikatuta daudela, onetsita daudela, kontuhartzaileak baimenduta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta epean ordaindu direla.

Berrikusitako kontratuen lizitazioa eta haien adjudikazioa, bai eta haien betetzea ere, kontratuen arloko legediaren arabera izapidetu dira.

Hala eta guztiz ere, detektatu dugu zerbitzu batzuetarako ez dela izapidetu zegokien kontratazio-espeditentea, araudi indardunean ezarritakoa urratuta.

Gomendatzen dugu kasuko kontratazio-espeditenteak izapidetzea kontratuak amaituta dituzten zerbitzuen kasuan eta errepikatzen direlako edo daukaten zenbatekoagatik araudi indardunak hala aurreikusten duen kasuetan.

VI.7. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

Transferentzia arruntak direla-eta Udalak egindako gastuak 207.107 eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 11 egin zuten. Haien betetze-maila behin betiko kontratuen ehuneko 147koa izan zen.

Kapitulu honetako gastuak ehuneko 80 handitu ziren aurreko ekitaldikoekin alderatuta, batez ere Zahar-etxearen Patronatuari egindako ekarpena ehuneko 452 handitu zelako, 20.121 eurokoa izatetik 111.148 eurokoa izatera pasa baitzen.

Honako hauek dira transferentzia arruntetarako gastuak osatzen dituzten kontzeptu nagusiak, kapituluaren ehuneko 88 egiten dutenak:

Kontzeptua	Gastua	Kapituluaren gaineko ehunekoak	Betetakoa (%)
Mankomunitateei	57.320	28	99
Zahar-etxearen Patronatua	111.148	54	278
Kirol Mankomunitatea. Igerilekuetako sorosleak.	13.287	6	95
Guztira	181.755	88	162

Udalak 2017an emandako dirulaguntzen lagin bat berrikusi dugu. Haiek emateko prozedura eta oinarri arautzaileak aztertu ditugu, bai eta haien justifikazioa, onespena, fiskalizazioa, kontabilizazioa eta ordaintzea ere.

Udala kide den mankomunitate bakoitzari aitortutako gastuaren zenbatekoa kuantifikatu da, eta aztertu da aurreko urtekoarekiko zenbat aldatu den eta gastuaren dokumentu bidezko justifikazioa zuzena den.

Berrikuspen horiek eginda, ean beharra daukagu ezen, oro har, dirulaguntzak aplikatzeko den araudiaren arabera eman eta erregistratu direla; halere, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

c) Erakunde autonomoarentzako ekarpena erakunde horren diru-sarrerak eta gastuak 2017an orekatzeko behar zen kopuruari erreparatuta egin da. Ekarpene hori 111.148 eurokoa izan da, nahiz eta behin betiko kreditua 40.000 eurokoa zen. Ez da kasuko aurrekontu-aldaketa onetsi, kreditua gastua betearazteko behar zen adina zuzkitze aldera.

Gomendatzen dugu behar diren aurrekontu-aldaketak onestea aurreikusitako gastua baimentzea bideratuko duen kreditua zuzkitze aldera.

VI.8. INBERTSIOAK

Kapitulu honen hasierako kreditua 162.100 eurokoa da, eta 421.265 euroko aurrekontu-aldaketak egin dira, 2016ko ekitaldiko diruzaintzako gerakinarekin finantzatu direnak. Inbertsioak ekitaldiko guztizko gastuaren ehuneko 12 dira.

Aitortutako betebeharrak 215.069 eurokoak izan dira, eta behin betiko kredituen gaineko ehuneko 37ko betetze-ehunekoak izan dute. Ehuneko apal horren arrazoia da aurreikusitako obra bazuk edo batere ez direla egin edo betetze txikia izan dutela.

2017an, honako kontratu hauek adjudikatu dira:

Izena	Kontratu-mota	Adjudikazio-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Diru-kopurua Adjudikazioa (BEZik gabe)	Diru-kopurua Betetakoa (BEZik gabe)
Bideak profilatu eta trinkotzea	Obrak	Negoziatua	42.222	40.639	37.519
Industrialdera argindarra eramatea	Obrak	Negoziatua	34.458	31.831	31.831
Hilobiak eta nitxoak egitea	Obrak	Txikia	19.722	18.138	17.502
Parke Barranco izenekoak ledak jartzea	Obrak	Negoziatua	25.672	17.986	18.427
Alhama ibaiaren pasarela	Obrak	Negoziatua	29.884	28.000	27.945

Gainera, 2017an honako kontratu honek jarraitzen du indarrean:

Izena	Esleipen-urtea	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Betetako zenbatekoa (BEZik gabe)
Ludoteka egokitzea	2016	33.844	34.132

Aurreko kontratuak berrikusita, konklusioa da ezen, oro har, araudi indarduna errespetatu dela, gastuak baimenduta daudela eta zuzen kontabilizatu direla.

Gomendatzen dugu inbertsioak egoki planifikatzea eta haiek betearazteko egutegiak ezartzea, aurrekontu errealistagoak egite aldera.

VI.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2017ko ekitaldiko kapitulu bakoitzarengatik aitortutako eskubideak eta haien eta aurreko ekitaldikoek arteko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira:

Kapitulua	Aitortutako eskubideak, 2016*	Aitortutako eskubideak, 2017	2017/2016 aldea (%)
1.- Zuzeneko zergak	593.066	548.584	-8
2.- Zeharkako zergak	34.834	32.214	-8
3.- Tasak, prezio publikoak, bestelako diru-sarrerak	339.660	362.595	7
4.- Transferentzia arruntak	821.910	808.256	-2
5.- Ondare bidezko diru-sarrerak	24.108	22.595	-6
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	3.034.090	2.999.904	-2
7.- Kapital transferentziak	15.848	105.746	567
Kapitaleko diru-sarrerak	1.845.274	1.985.736	567
Diru-sarrerak, guztira	!B11 No está en la tabla	!C11 No está en la tabla	3

*Auditatu gabeko ekitaldia

2017an aitortutako eskubideak 1,88 milioi eurokoak izan dira; horietatik, 1,77 milioi diru-sarrera arruntei dagozkie eta 0,11 mila euro, berriz kapital-transferentziei. Diru-sarreraren betetze maila ehuneko 79 izan da. 2016ko ekitaldiaren aldean, diru-sarreraren guztizko zenbatekoak ehuneko hiru egin du gora.

2016an eta 2017an ez da zorpetze finantzario berririk itundu.

Zergen bidezko diru-sarrerak

Zergak udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 29 dute, eta honakoei dagozkie:

Izena	Aitortutako eskubideak, 2016*	Aitortutako eskubideak, 2017	Kobrantsak 2017	2017/2016 aldea (%)
Zuzeneko zergak	593.065	548.584	482.734	-8
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	11.786	11.751	11.236	0
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	370.488	368.815	327.325	0
Ibilgailuak	122.418	123.617	103.859	1
Lurren balio-gehikuntza	37.734	1.334	1.334	-96
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	50.639	43.067	38.980	-15
Zeharkako zergak	34.835	32.214	6.587	-8
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	34.835	32.214	6.587	-8
Guztira	627.900	580.798	489.321	-8

*Auditatu gabeko ekitaldia

Udalak nahitaezko zerga guztiak ordainarazten ditu: lurraren kontribuzioa, trakzio mekanikoaren ibilgailuen gaineko zerga, jarduera ekonomikoen gaineko zerga, hiri-lurren balio-igoeraren gaineko zerga eta EIOZa.

Abenduaren 17ko 19/2017 Foru Legeak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatu zuen, eta deklaratu zuen hiri-lurren balio-igoeraren gaineko zergari loturik egonen direla soilik balio-igoera gertatu dela ziurtatzen deneko transmisioak. Xedapen iragankorrean data eta likidazio desberdinen arabera aplikatzekoak diren arauak ezartzen ditu, irmo bilakatu diren ala ez kontuan hartuta. Aldaketa horren ondorioz, eta 2016arekin alderatuta, lurren balioaren gaineko zerga dela-eta aitortutako eskubideak ehuneko 96 handitu dira.

Fiteroko Udalak, 2016ko abenduaren 26an egindako Osoko Bilkuran, honako zerga-tasa hauek onetsi zituen 2017rako:

Zergak	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,30	0,10 - 0,50
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,50	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga		
Gaurkotzearen koefizientea		
Bost urte bitarte	3,3	2,2 - 3,3
10 urte bitarte	3,2	2,1 - 3,2
15 urte bitarte	3,1	2,0 - 3,1
20 urte bitarte	3,1	2,0 - 3,1
Zerga-tasa	18,5	8 - 20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4	2 - 5

Zerga-tasa horiek 2016koen antzera mantentzen dira.

Zuzeneko eta zeharkako zerga guztien lagin bat berrikusi dugu. Egindako lanean egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zergen likidazioa eta haien diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzailleen arabera egin direla.

2017an indarrean egon den balorazio-ponentzia 2007an gaurkotu zen. 2018ko ekitaldian haren gaurkotzea hasteko eskatu da.

Gomendatzen dugu balorazio-ponentzia gaurkotzen jarraitzea eta Tasa bakarra aplikatzea landa-lurreko ondasunen gaineko kontribuzioa ordainarazteko, legedi indardunean ezarritakoari jarraituz.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk

Honako hauek dira 2017an tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk direla-eta aitortutako eskubideak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk	Aitortutako eskubideak 2016*	Aitortutako eskubideak 2017	Aldea (%) 2017/2016
Uraren eta estolden tasak eta kontagailuen mantentzea	201.344	209.237	4
Hilerriko tasak	1.492	4.362	192
Hirigintza-lizentziak	14.531	4.295	-70
Dokumentuak egitea	1.289	1.586	23
Ibiak-lbilgailuen sarrera	8.805	8.659	-2
Hornidura-enpresen aprobetxamendu-tasak	22.677	25.148	11
Terrazak	3.155	3.155	0
Hesiak eta aldamioak	2.941	7.283	148
Azoka txikia	8.854	8.613	-3
Kirol instalazioak	11.113	18.047	62
Igerilekuko diru-sarrerak	27.432	19.280	-30
Ekitaldietan eta bestelakoetan lortutako diru-sarrerak	0	22.579	-
Salmentak	3.294	3.628	10
Isunak	2.921	5.454	87
Premiamendu-errekarguak	3.514	5.646	61
Egitarau eta aldizkarietako iragarkiak	4.230	4.433	5
Besterik	22.068	11.190	-49
3. kapitulua, guztira	477.976	515.953	7

*Auditatu gabeko ekitaldia

Diru-sarrerek ehuneko zazpi egin zuten gora 2016koekin alderatuta, funtsean antzokian egingako ekitaldietako diru-sarrerei esker —halakorik ez zen gertatu aurreko ekitaldian— eta kirol-tiketen salmentak gora egiteari esker.

Kontzeptu nagusia uraren, estolden eta kontagailuen mantentzearen tasei dagokie, eta kapituluaren ehuneko 58 egiten du. Tasa horietan izandako aldea, 2016ko ekitaldikoekin alderatuta, tarifak eta erabiltzaileen kopurua igotzeari esker gertatu da.

Hurrengo partiden lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptua	2017an aitortutako betebeharrak
Uraren eta horniduraren eta saneamenduaren tasa	209.237
Enpresen aprobetxamendu bereziak	25.148
Kultur ekitaldietako diru-sarrerak	22.579
Igerilekuetako diru-sarrerak	19.280
Kirol instalazioak	18.045

Egindako berrikuspenetik eratorzen da tasen, prezio publikoen eta bestelako diru-sarreraren bi-dezko diru-sarrerak arrazoizkoak direla, eta haien likidazioa eta diru-bilketa aplikatzekoa den araudiaren arabera egin dela.

Ondare bidezko diru-sarrerak

Ondoren azaltzen dugu kapitulu honetan 2017an izan den bilakaera, 2016koarekin alderatuta:

Ondare bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak 2016*	Aitortutako eskubideak 2017	Aldea (%) 2017/2016
Banketxeetako kontuen korrituak	115	1	-99
Zinema-aretoko tabernaren finkaren errentamendua	3.992	3.996	0
Hiri-finken errentamendua	696	698	0
Telefoniarako lurren errentamendua	708	1.000	41
Herri-lurren aprobetxamenduak, zuzeneko adjudikazio bidezkoak	9.882	9.196	-7
Herri-lurren aprobetxamenduak, bizilagunei adjudikatutakoak	7.552	7.704	2
Ehiza barrutiaren errentamendua	1.163	0	-
Ondare bidezko diru-sarrerak, guztira	48.101	45.189	-6

*Auditatu gabeko ekitaldia

Diru-sarrera horien kontzeptu nagusia zuzenean adjudikatutako eta bizilagunei adjudikatutako herri-lurren aprobetxamenduetatik datorrena da; horrekin batera, kontuan hartu behar da ehiza-barrutia dela-eta ez dela diru-sarrerarik lortu (doako lagapena). Horrek guztiak 2016ko ekitaldiarekiko aldea justifikatzen du.

Herri-lurren aprobetxamenduak berrikusi ditugu, zuzenean adjudikatutakoak zein bizilagunei adjudikatutakoak. Berrikuspen horretatik ondorioztatzen da ezen, oro har, ondare bidezko diru-sarrerak arrazoizkoak direla.

Transferentzien bidezko diru-sarrerak

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 808.256 eurokoak eta 105.747 eurokoak izan dira hurrenez hurren, eta diru-sarrera guztien ehuneko 49 dira. Hona haien 2016ko ekitaldiarekiko konparazioa:

Transferentzien bidezko diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak 2016*	Aitortutako eskubideak 2017	Aldea (%) 2017/2016
Estatuaren tributuetan parte-hartzea	1.953	2.562	31
Hauteskunde erroldarako dirulaguntza	39	39	0
<i>Estatu (guztizko partziala)</i>	<i>2.031</i>	<i>2.640</i>	<i>31</i>
Toki Ogasunen Funtza	695.554	704.596	1
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, gazteak kontratatuzkoa	10.200	0	-100
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, Bake Epaitagirakoa	737	737	0
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, osasun-etxerakoa	7.207	7.356	2
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, Montepiorakoa	54.125	41.062	-24
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, kultur jardueretarako	1.885	0	-
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, zinegotzien dietetarako	30.580	30.404	-1
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza, obretan langabetuak kontratatuzkoa	11.989	13.801	15
<i>Nafarroako Gobernu (guztizko partziala)</i>	<i>929.000</i>	<i>891.316</i>	<i>-2</i>
Oinarrizko mankomuniteterako ekarpena	7.641	7.699	1
<i>Beste hainbat dirulaguntza (guztizko partziala)</i>	<i>7.641</i>	<i>7.699</i>	<i>1</i>
Transferentzia arruntak, guztira	1.525.105	1.520.551	-2
Nafarroako Gobernu	15.848	105.747	567
Kapital-transferentziak, guztira	15.848	105.747	567

*Auditatu gabeko ekitaldia

Transferentzia arruntek behera egin dute, batez ere, 2017an ez zelako gazte langabeturik kontratatu; horrenbestez, ez zen Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik jaso; bestetik, montepiorako dirulaguntzak ere jaitsi egin dira.

Udalak 2016k ekainean 2012-2015 aldiari dagozkion hobariak eskatu ditu, eta kobratzeko daude. Haien zenbatekoak 1.871 euro egiten du.

Kapital-transferentzietan dagoenez, 2016ko ekitaldiarekin alderatuta gora egin dute Nafarroako Gobernutik 2017an zehar egindako obretako inbertsioak finantzatzeko jasotako dirulaguntzek.

Transferentzien kapituluak, Udalaren aurrekontu-informazioa Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontu-informazioarekin koherentea den berrikusteaz gainera, berrikusi dugu Udaleri oinarriko gizarte zerbitzuen mankomunitateak egiten dion ekarpena, bai eta Nafarroako Gobernuaren libreki erabakitako kapitaleko dirulaguntzak ere.

Egindako lanarekin, egiaztatu dugu ezen, oro har, transferentziak aplikatzekoa den araudiaren arabera kudeatu direla.

Itxitako ekitaldietako diru-sarrerak.

Hurrengo taulan 2017an egindako kobrantzen laburpen bat erakusten dugu, bai eta 2017ko abenduaren 31n kobratzeko dauden saldoak ere, itxitako ekitaldietako aurrekontuen diru-sarrerari dagozkienak.

Urtea	Hasierako saldoa 2017-01-01	Kobrantzak 2017	Kaudimen gabeziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2017-12-31	Ehunekoak, amaierako saldoaren gainean	Kobrantzen ehunekoak, hasierako saldoaren gainean
2016	158.674	82.968	0	75.706	13	52
2015	91.121	20.598	0	70.523	12	23
2014	80.963	10.418	0	70.545	12	13
2013	63.089	2.882	0	60.207	10	5
2012	60.183	1.686	0	58.497	10	3
2011	56.836	1.950	0	54.886	9	3
2010. urtea eta aurrekoak	219.569	6.041	0	213.528	35	3
Guztira	730.435	126.543	0	603.892	101	17

Hona hemen itxitako ekitaldietatik kobratzeko dauden saldoen xehetasunak, kontzeptuaren arabera:

Itxitako ekitaldietako aurrekontuak-Diru-sarrerak	Diru-kopurua	Guzt. gain. %
Lurraren kontribuzioa	313.705	52
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ)	74.813	13
Lurren balio igoeraren gaineko zerga.	13.890	2
Ibilgailuen gaineko zerga	104.443	17
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	1.081	0
Uraren horniduraren eta saneamenduaren tasak	34.604	6
Beste lur batzuk	24.891	4
Ekarpen bereziak	14.731	3
Familiak	7.019	1
Hiri-finken errentamendua	7.724	1
Gainerakoa	6.991	1
Guztira 2017/12/31	603.892	100

Kalkulatu dugu zein diren diru-bilketa zaileko diru-sarrerak, irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren arabera, eta 566.040 eurokoak dira.

Gomendatzen dugu kobratzeko zailak diren eta kobratzeko dauden saldoak berrikustea, eta aztertzea haiek kobrantza-eskubideak irudikatzen dituzten.

VI.10. "SAN RAIMUNDO DE FITERO" ZAHAR-ETXEA

VI.10.1 Aurrekontu-likidazioa

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	% Betetzea	Ordainketak	% Egiteko dagoen ordainketa	Ordainketa
1. Langile-gastuak	454.880	454.880	524.822	115	487.709	93	37.113
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	102.525	102.525	146.999	143	135.268	92	11.732
4. Transferentzia arruntak	650	650	331	51	331	100	0
6. Inbertsio errealak	3.000	3.000	4.171	139	4.171	100	0
Guztira	561.055	561.055	676.323	121	627.479	93	48.845

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetzea (%)	Kobrantzak	Kobrantza (%)	Kobratzeko dagoena
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	520.100	520.100	565.175	109	563.778	100	1.397
4. Transferentzia arruntak	40.950	40.950	111.148	271	101.762	92	9.287
5. Ondare bidezko diru-sarrera eta herri-ondasunen erabilerak	5	5	0	-	0	-	0
Guztira	561.055	561.055	676.323	121	665.540	98	10.684

Zahar-etxearen 2017rako hasierako aurrekontua eta behin betiko aurrekontuak 561.055 euroko gastuak eta diru-sarrerak jasotzen ditu. Aitortutako betebeharrak eta eskubideak 676.323 eurokoak izan dira, eta ehuneko 121eko betetze-maila izan dute.

Aitortutako betebeharrak gastuen kapitulu garrantzitsuetan behin betiko kredituak gaintzen dituzte, eta ez dira onetsi gastuak betearazteko behar adinako kredituak zuzkitzeko behar ziren aurrekontu-aldaketak.

Honako hauek dira 2017rako aurrekontuan jasotako kredituak eta 2016an aitortutako betebeharrak eta eskubideekiko alderaketa:

Kapitulua	Aitortutako betebeharrak 2016*	Behin betiko kredituak 2017
Langile-gastuak	502.248	454.880
Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak	136.498	102.525
Transferentzia arruntak	636	650
Inbertsio errealak	1.418	3.000
Gastuak, guztira	640.800	561.055

*Auditatu gabeko ekitaldia

Kapitulua	Aitortutako eskubideak 2016*	Behin betiko kredituak 2017
Tasak eta prezio publikoak	530.224	520.100
Transferentzia arruntak	21.042	40.950
Ondare bidezko diru-sarrerak	2	5
Inbertsio errealak besterentzea	79.964	0
Gastuak, guztira	631.232	561.055

*Auditatu gabeko ekitaldia

Ikusten dugu 2017ko ekitaldiko behin betiko kredituak —561.055 euro inguru— 2016ko ekitaldian betearazitako gastu eta diru-sarrerak baino ehuneko 11 txikiagoak direla, gutxi gorabehera. Hau da, zahar-etxeak 2017rako zeukan diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena aurreko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen betetzea baino txikiagoa zen. Hala eta guztiz ere, 2017an aitortutako betebeharrak eta eskubideak 676.323 eurokoak izan dira, behin betiko kredituak baino ehuneko 21 gehiago.

Hurrengo tauletan, 2017ko aurrekontu-emaizta eta diruzaintzako gerakina erakusten ditugu:

Aurrekontu-emaizta

Aurrekontu-emaizta	2016*	2017
+ Aitortutako eskubideak	631.232	676.323
- Aitortutako betebeharrak	(640.800).	(676.323).
= Aurrekontu-emaizta	(9.568).	0
Doikuntzak	0	0
Aurrekontu-emaizta doitua	(9.568).	0

*Auditatu gabeko ekitaldia

Diruzaintzako gerakina

Diruzaintzako gerakina	2016*	2017	Aldea (%)
+ Kobratzeko dauden eskubideak	22.312	30.471	37
- Bilketa zaileko eskubideak**	(15.085).	(17.685).	17
- Ordaintzeke dauden betebeharrak	(58.976).	(63.415).	8
+ Diruzaintzako funts likidoak	11.300	7.579	-33
Diruzaintzako gerakina, guztira	(40.449).	(43.050).	6
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintzako gerakina	0	0	-
Baliabide atxikien diruzaintzako gerakina	0	0	-
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	(40.449).	(43.050).	6

*Auditatu gabeko ekitaldia

**Ganbera honek doitutako zenbatekoa.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 43.050 euro negatiboa da. Gerakin hori jaitsi dugu diru-bilketa zaileko eskubideak —17.685 euro— direla eta; zenbateko hori, izan ere, kopuru hori ez zen kontuan hartu gerakina kalkulatzekoan.

Udalak ez du zahar-etxearen jarduketari buruzko ez kontu-hartzaitzako eginkizunik ez kontrol finantzariokorik egiten.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontua halako moduz egitea non arrazoiz jasoko baititu ekitaldian garau beharreko jardueraren aurreikuspenak.*
- *Diruzaintzako gerakinean justifikazio zaileko eskubideak jasotzea.*

- *Udalak zahar-etxearen jardueraren gainean egin beharreko barne-kontrola behar bezala bermatzeko prozedurak diseinatzea.*

VI.10.2 Langile-gastuak

Langile-gastuak 524.822 eurokoak izan ziren 2017an, ehuneko 115eko betetze-portzentajearekin, eta ekitaldiko gastu guztien ehuneko 78 dira. 2016ko urtearen aldean, gastu hori ehuneko lau igo da.

Hona haren xehakatzea eta 2016koekiko konparazioa:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak 2016*	Aitortutako betebeharrak 2017	2017/2016 aldea (%)
Lan kontratudun finkoak	324.561	313.534	-3
Aldi baterako lan-kontratudunak	67.310	99.764	48
Gizarte-zamak	110.377	111.524	1
Guztira	679.935	736.110	4

*Auditatu gabeko ekitaldia

Lan-kontratupeko langile finkoen gastuak ehuneko hiru egin zuen behera, batez ere 2017an bi langileren eszedentzia-aldia hasi delako.

Aitzitik, aldi baterako langileen gastua ehuneko 48 handitu da, batez ere aipatu berri ditugun eszedentziak betetzeko egindako kontratazioengatik eta aldi baterako ezgaitasuneko beste egoera batzuegatik.

Plantilla organikoa

Zahar-etxearen plantilla organikoak honako lanpostu hauek jasotzen ditu, guztiak ere lan-kontratupeko langileenak:

Kategoria	Araubide juridikoa	Lanpos- tuen kopu- rura	Hutsak	Lanaldia
Erizain eta zuzendaria	Lan- kontratupekoa	1	1	Osoa
Erizaina	Lan- kontratupekoa	1	1	Osoa
Zerbitzu orokorreko laguntzailea	Lan- kontratupekoa	2	0	Osoa
Zerbitzu orokorretako laguntzailea, gaueko zaindariak	Lan- kontratupekoa	2	0	Osoa
Sukaldaria	Lan- kontratupekoa	1	0	Osoa
Zerbitzu orokorreko laguntzailea	Lan- kontratupekoa	13	0	Partziala
Sukaldaria	Lan- kontratupekoa	1	0	Partziala
Guztira		21	2	

Erizaina eta zuzendaria den langilearen eta erizanaren lanpostuak aldi baterako langileekin bete dira 2016tik.

2017ko abenduaren 31n, patronatuan guztira 25 langile ari ziren lanean; hona hemen xehetasunak:

Kategoria	Finkoa	Aldi baterakoa	Guztira
Erizain eta zuzendaria	-	1	1
Erizaina	-	1	1
Zerbitzu orokorreko laguntzailea	2	-	2
Zerbitzu orokorretako laguntzailea, gaueko zaindariak	1	1	2
Sukaldaria	1	-	1
Zerbitzu orokorretako laguntzailea, lanaldi partzialekoa	10	6	16
Sukaldaria, lanaldi partzialekoa	1	1	2
Enplegatuak, guztira 2017-12-31n	15	10	25

2017ko abenduaren 31n, zahar-etxeko lau langile eszedentzian zeuden. Langile finkoen gaixotasunengatikojak, oporrak eta eszedentziak betetzen dituzten aldi baterako lan-kontratupeko hamar langileetatik zortzi laguntzaileak dira.

Kontratazioak, oro har, urgentziaz egiten dira, prestazio jarraituko zerbitzu bat baita, esperientzia eta lanbide-txartela duten pertsonekin zahar-etxeak egindako kontratazio-zerrenda baten bitartez. 2017an, ez dago kontratatutako aldi baterako langileen espedienterik.

Zahar-etxeko lan-kontratupeko langileei ostalaritzaren industriako 2015-2016-2017 urteetarako hitzarmen kolektiboa aplikatzen zaie. Hitzarmen horretan aurreikusita ez dagoenerako, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzazko Errege Dekretua da aplikatzekoa, zeinaren bidez Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten baita.

Aztertutako lagina

Langile-gastuen lagin bat berrikusi eta aztertu ondoren, konklusioa da ezen, oro har, ordainsariak betetako lanposturako ezarritakoak direla eta egindako atxikipeak zuzenak direla. Hala eta guztiz ere, honako hau aipatu behar dugu:

d) Erizaina eta zuzendaria den langilearen lanpostuari Patronatuaren Batzarrak erabakitako ordainsariak aplikatzen zaizkio, baina ez dago behar adina jasota hartutako erabakien justifikazio-dokumentuak, ez eta aplikatutako ordainsari-konzeptuak ere.

e) Kapitulu horretan kontabilizatzen da kanpoko aholkularitza-entresak kontabilitaterako, administratiorako eta egoitzaren zuzendaritza laguntzeko fakturatutako gastuaren zati bat, 14.810 euro egiten duena.

Gure gomendioak:

- *Hautapen-prozesu publikoak egitea langileak kontratatzeko zerrendak egiteko.*
- *Ordezkatzeetarako edo ezintasunarengatikojak betetzeko langile-espedienteak egitea.*
- *Zahar-etxeko langileei egindako jarduerarekin —mendetasuna duten pertsonen laguntzea eta haien autonomia pertsonala sustatzea— bat datorren hitzarmen kolektibo bat aplikatzea.*
- *Erizaina eta zuzendaria den langilearen lanposturako ordainsari-konzeptuak zehaztu eta onestea.*
- *Lan-aholkularitzaren guztizko gastua ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuen kapituluaren kontabilizatzea.*

VI.10.3 Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan

Honako hauek dira 2017ko gastu arruntak eta zerbitzuak eta 2016koekiko konparazioa:

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	Aitortutako betebeharrak, 2016*	Aitortutako betebeharrak, 2017	2017/2016 aldea (%)
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	23.771	37.485	60
Materiala, hornidurak eta beste	102.727	109.514	7
Guztira	136.498	146.999	17

*Auditatu gabeko ekitaldia

Ondasun arruntan eta zerbitzuen arloko gastuak 146.999 eurokoak izan dira 2017an, eta bete-tze-maila ehuneko 143koa izan da. Gastu hori, nagusiki, instalazioen eta makineriaren manten-tzeari, hornidurei eta hirugarrenek emandako beste zerbitzu batzuei dagokie.

Egindako lanean detektatu dugu zerbitzu batzuetarako ez dela kasuko kontratazio-espeditentia izapidetu, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren aurka.

Ez dago jasota laneko eta kontabilitateko aholkularitza-enpresarekin kontratua dagoenik. 2017ko urteko gastua 19.638 eurokoa da: 4.828 euro kapitulu honetan kontabilizatu dira, lanaren arloko kudeaketaren kontzeptuan, eta 14.810 euro, berriz, langile-gastuen kapituluan, kontabilitate, administrazio eta zuzendaritzarako laguntzaren kontzeptuetan. Egindako fakturaren zerga-gainarriari ez zaio PFEZaren kasuko atxikipena aplikatzen.

Gure gomendioak:

- *Kasuko kontratazio-espeditentia izapidetzea kontratuen indarraldia amaituta duten zerbitzuen ka-suan eta errepikatzen direlako edo daukaten zenbatekoagatik araudi indardunak hala aurreikusten duen kasuetan.*
- *Kontabilitateko eta lan arloko aholkularitza-zerbitzurako kontratua egitea.*
- *Aholkularitza-enpresak fakturatutako zenbatekoen PFEZaren atxikipena egitea.*

VI.10.4. Aurrekontuko diru-sarrerak

2017ko ekitaldian aitortutako eskubideak eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira:

Kapitulua	Aitortutako eskubi-deak, 2016*	Aitortutako eskubideak 2017	2017/2016 aldea (%)
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	530.224	565.175	7
4. Transferentzia arruntak	21.042	111.148	428
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	2	0	-100
6. Inbertsio errealak besterentzea	79.964	0	-100
Guztira	732.240	787.471	7

*Auditatu gabeko ekitaldia

2017ko ekitaldiko diru-sarrerak ehuneko zazpi handitu dira 2016koekin alderatuta.

Tasen eta beste diru-sarrera batzuen bidezko diru-sarrerak —565.175 euro— zahar-etxeke era-biltzaileen kuotak jasotzen dituzte; diru-arrera horiek handitu egin dira egoiliar-postu gehiago oku-patu direlako. 2017ko ekitaldian mendekotasun-maila bakoitzerako aplikatutako tasak berdin man-tendu dira 2014tik. 2018an haien gaurkotze bat onetsi da 2019. urterako.

Transferentzia arruntetan kontabilizatutako guztizko zenbatekoa —111.148 euro— Udalak za-har-etxeari egindako ekarpenei dagokie. 2016arekin alderatuta izan duen igoera nabarmena zor zaio, nagusiki, zahar-etxearen 2017ko ekitaldiko defizita estaltzeko Udalak egindako ekarpenari. Aurreikusitako kredituekiko aldea 71.148 eurokoa da: ehuneko 178 gehiago da, beraz.

Inbertsio errealen besterentzearen bidezko diru-sarreretan 2016an jasotako diru-kopurua egoi-liar batengandik heredatutako etxebizitza baten salmentari dagokio.

Diru-sarreraren aurrekontuko partida batzuen lagin baten gainean egindako azterketa eginda —erabiltzaileen kuotak eta dirulaguntzak—, egiaztatu dugu ezen, oro har, haien izapidetzea, justifikazioa eta kontabilizatzea egokiak direla.

Itxitako ekitaldietako diru-sarrerak.

Hurrengo taulan, 2017an egindako kobrantzak erakusten ditugu, bai eta 2017ko abenduaren 31n kobratzeko dauden saldoak ere, itxitako ekitaldietako aurrekontuen diru-sarrerari dagozkienak.

Urtea	Hasierako saldoa 2017/1/1	Kobrantzak, 2017	Amaierako saldoa 2017-12-31	Amaierako saldoaren gaineko %	Kobrantzak hasierako saldoaren gainean (%)
2016	5.124	920	8.408	21	18
2015	4.204	0	8.408	21	0
2014	4.998	0	9.996	25	0
2013	2.400	904	2.992	8	38
2012	1.499	700	1.598	4	47
2009. urtea eta aurrekoak	4.087	0	8.174	21	0
Guztira	22.312	2524	39.576	100	11

2017ko abenduaren 31n jasotzeko dauden diru-sarrera guztiak egoiliarren tasei dagozkie.

Gomendatzen dugu kobratzeko dauden aurreko urteetako saldoak berrikustea, kobrantza-eskubideak islatzen dituzten aztertze aldera.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2019ko apirilaren 1ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

2017ko ekitaldiari buruz Nafarroako Kontuen Ganberak egindako behin-behineko fiskalizazio txostena udal honetan jaso ondoren, horretarako ezarritako epean honako ALEGAZIO hauek egin ditugu:

LEHENA.- Lehenengo eta behin eskerrak eman nahi dizkiegu langileei egindako lanarengatik, bai eta txostenean jasotako aholku eta gomendioengatik ere.

BIGARRENA.- Txostenak 17. orrialdean kontu orokorra aipatzen du, eta esaten du Udalaren eta bere erakunde autonomoaren egoera-orri bateratua egin beharra dagoela. Bada, besterik gabe aipatu nahi dugu udal honek dokumentu tekniko hori idatzi ohi duela Kontu-hartzaitzaren txostenean eta aurrekontuari erantsitako dokumentazioan. Dokumentazio hori kontu orokorraren fiskalizazioaren zati bat izan da.

Fiteron, 2019ko otsailaren hogeita seian.

Alkatea, Raimundo Aguirre Yanguas

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiogu Fiteroko Udaleko alkateari aurkeztu dizkigun alegazioengatik.

Alegazio horiek behin-behineko txostenari eranstean zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

Iruñean, 2019ko apirilaren 1ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

